

**GERENTEAREN EBAZPENA, 2018KO MAIATZAREN 7KOA; HONEN BIDEZ, GUFeko ALDI BATERAKO LANeko POLtSEN OSAERARI DAGOKIONEZ AUKERATZEKO ESKUBIDEA BALIATZEKO EPEA ZABALTZEA XEDATU DA.**

**Gerente andrea:**

GUFeren Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kudeatzeko irizpideak onartu zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (76. Zk., 2018ko apirilaren 20koa, eta 85. Zk., 2018ko maiatzaren 4ko akatsen zuzenketa) eta GUFeren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratu zen.

Erabaki horren bidez, ahalmena ematen zaio GUFeko gerenteari testu horretan ezarritakoa gauzatzeko, eta, ondorioz, orain, besteak beste, aldi baterako laneko poltsak kategorien arabera aukeratu beharra xedatu du, dokumentuan ezarritako epean eta moduan.

Poltsen kudeaketan lortutako esperientziak erakutsitakoaren ondorioz, komeni da funtzionamendua prozesu antolatu baten bidez gauzatzea, zonen banaketa berri baten arabera, dauden zentroek eta zerbitzuek kudeaketaren arloan dituzten beharrianak ondo bete ahal izateko.

Azken finean, xedea da lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen eskubide legitimoak bateragarri egitea Erakundeak bere zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileei arreta egokia eta eraginkorra emateko duen konpromisoarekin. Premisa horretatik ondorioztatu behar da lan-poltsetan daudenek deituak izateko dituzten zentzuzko itxaropenak ez direla absolutuak; izan ere, eskubide horrek muga bat du: deitzea eragin duten laguntza-lanak behar bezala betetzen direla ziurtatu behar da. Eta ezin da ahaztu, gehienetan, lan horien ardatz nagusia dela erabiltzaileen oinarritzko eskubideak bermatzea.

Ondorioz, epe bat zabaldu nahi da, interesatuta daudenek dagokien aukera-eskubidea erabil dezaten, zonifikazio berrian ezarritako multzoen arabera. Zonifikazioari buruzko eranskinari dagokion lan-poltsak kudeatzeko irizpide berrien dokumentuak zehaztuko ditu aurrerantzean parte hartzeko lehentasunak. Zentroen banaketa berri honek deuseztatu eta ordeztu egiten du aurreko zonifikazioa, eta, beraz, ezinbestekoa izango da interesatuta daudenek ezarriko diren epeetan aukeratzea zonak, eurek lehenetsitako zentroetan lan egin ahal izateko.

Orain aukera egiten ez dutenek ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharrianetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu, eta beti Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak ezartzen duen eran.

Aurreko guztiaren berri eman zaie erakundearen ordezkariak duten sindikatuari, Lan-poltsen Jarraipenerako Batzordearen eta Negoziazio Mahaiaren bileretan.

Edonola ere, poltsak osatzen dituzten pertsonen lanpostua betetzeko baldintza guztiak bete beharko dituzte kontratua egiten den egunean.



Gai hau ebazteko eskumena GUFeko gerenteari dagokio, lehen aipatutako gaikuntzan eta GUFeren Estatutuak aldarazteari buruzko 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauko 9. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Beraz, hau sinatzen dutenek honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

### EBAZPENA

**Lehenengoa.**- Zona aukeratzeko epe bat zabaltzea, **2018ko maiatzaren 14tik ekainaren 3ra**, egun biak barne, GUFeko lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen lanerako zona aukeratzeko eskubidea baliatu dezaten. Telematikoki egin beharko dute, GUFeren web-orriaren bitartez ([www.ifas.bizkaia.eus](http://www.ifas.bizkaia.eus)). Zona jakin batean lan egin nahi duten pertsonen online eskabidearen bidez aukeratu beharko dute/dituzte zona/zonak.

Orain aukera egiten ez dutenek ez dute galduko eskubidea, baina plaza hutsak betetzeko egon daitezkeen beharizanetarako lan-poltsa orokor batean baino ezin izango dira sartu, eta beti Pertsonak Zuzentzeko Departamentuko buruak ezartzen duen eran.

**Bigarrena.**- Ebazpen honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta GUFeren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzea, baita lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan ere.

**Hirugarrena.**- Ebazpen honen berri ematea Zerbitzu Orokorren Departamentuko buruari, Antolaketa eta Hobekuntzarako Departamentuko buruari, zentroetako zuzendaritzei eta GUFEn ordezkaritza duten sindikatuei.

Bilbon, 2018ko maiatzaren 7an.

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA  
ARLOKO BURUA

Sin.: Rosa García García

PERTSONAK ZUZENTZEKO  
DEPARTAMENTUKO BURUA

Sin.: Nerea Urñen Azpitarte

GUFeko kudeatzailearen 2018ko  
maiatzaren 7ko EBAZPENA  
Aurreko proposamena ikusi ondoren,  
osorik onartzen dut. Aurrekoa bete bedi.

Sin.: Teresa Alba Zubizarreta